

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/24

Bizkaiak “zahartzea enplegurako aukera ekonomikoa bilakatzea” bilatu gura dau, Nagusi Intelligence Centerregaz

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak Gernikan gaur egin dan eta legealdiko azkena izango dan Politika Orokorreko osokoa iragarri dauenez, Bizkaiko Foru Aldundiak 20 milioi euro bideratuko ditu datozan bost urteetan Nagusi Intelligence Center (NIC) izeneko martxan jarteko. “Mundu mailan erreferentziazkoa izango dan zentroak” aukerea emongo deutso Bizkaiari “zahartzearen, Silver Economy izenekoaren, inguruan aukerak sortzeko”.

Gune horrek, Foru Aldundiak urte honetarako definidu dituan hiru erronkei erantzuna emotea bilatuko dau. Lehenengo, zahartzera zuzendutako prestakuntzea bultzatzea; bigarrena, Big Data plataforma bat sortzea, Euskadin zehar sakabanatuta dagozan datu guztiak zentretako xedez.

Eta hirugarrenez, persona nagusien zerbitzura egongo diran teknologia barriak sortzea. Unai Rementeriak azpimarratu dauenez, beharrezkoa da lurraldeari “laborategi aurreratua eskaintzea, osasun arloko produktuak (ospitaletarako eta egoitzetarako) eta sozio-sanitarioak (etxerako) testatzeko eta balioztatzeko eta, modu berean, Lurralde “haztegi teknologien eta ekipamenduen hornitzaile” bilakatzea.

Modu berean, Bizkaiko Ahaldun Nagusiak iragarri dauenez, Bizkaiko Foru Aldundiak BBVArena izandako eraikina okupauko dau, eta eraikinak Bizkaia Dorrea izena hartuko dau. Unai Rementeria berbetan, “Bizkaiaren itsasargi barria” izateko helburua dauka, eta “bere bihotzean” nazinoarteko ekintzaitza zentroa jasoko dau, “Aldundia eta Bilboko Udala alkartuko dituan asmo handiko proiektua”.

Bere berbaldian, azken urte honen eta bere Gobernuaren kudeaketaren balantzea be egin dau. Enpleguari jagokonez, Ahaldun Nagusiak bere gobernuak jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren alde egin dauen apustua baloratu dau eta, gai horregaz erlazionata, lan barik dagon pertsona kopuruaren beherakadea azpimarratu dau. Adierazo dauenez, “abuztua 5.000 lanbako gitxiagogaz itxi genduan”. Modu berean, Bizkaian 31 enpresa barri ezarri dirala eta 1.351 enpresa txiki eta ertain laguntzea emon jakela azpimarratu dau.

Turismoak eta Bizkaian egin eta egingo diran ekitaldi handiek “urte errepikaezina” bilakau dabe 2018a. Ahaldun Nagusiak azaldu dauenez, Bizkaiak gainditu egin dau barrero bere bisitari errekorra; Loiuko aireportuak ia lau milioi bidaiari jaso ditu urte honetan, bukatzeko asko falta dan arren, eta hamar turistetatik lau atzerritik etorri dira.

Halanda be, Unai Rementeriak gogoratuaz dau urte hau “arazoak izan dituan urtea be izan dala”. Lehenengoa, Lagundu Bako Adinbako Atzerritarrena (LBAA-MENA); horri jagokonez, “Bizkaia solidarioa izan dala eta dala nabarmendu dau, baina ahal dauen punturaino”. Bigarren arazoa tokiko merkataritzarena da; horri jagokonez, Ahaldun

Nagusiak erronka bat bideratu deutse bertaratutako guztiei: “Bat izatea: Bizkaiko merkataritza, kalidadezkoa, hurbila eta lehiakorra”.

Harmailatik iragarri dituen beste jarduketa batzuen artean, Rementeriak “Geroa bizkaitar bat” eskatu dau, enplegurako Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea (BGAE-EPSV) “Bizkaiko behargin guztientzat”, gaur egungo prestazio sistemea osatzeko. Garraioari jagokonez, Ahaldu Nagusiak proiektu bi azpimarratu ditu “Lurraldearen konektibitatearen eta bizitza kalidadearen etorkizunerako”: alde biak lotuko dituan itsasadarraren azpiko tunela eta Supersur izenekoaren bigarren fasea. Hondakinen tratamendua eta ingurumenaren zainketa be etorkizunerako helburuak izango dira.

OPOSIZINOKO TALDEAK

Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroalea izan da taldeen esku-hartze txandea zabaldu dauena. Azkenengo urtean gobernu taldeak lortu dituan arrakastetan Ahaldu Nagusiagaz bat etorri dan arren, batzarkideak “puntu ahulen azterketa txikia” egitea aukeratu dau. Beste gauza batzuen artean, Bizkaiak Petronorren eta Iberdrolaren “larregizko mendekotasuna” daukala adierazo dau Aldecoa: “Alde batetik suertea da, baina puntu ahula be bada”.

Beste alde batetik, zahartzearen gaia lantzeko xedez, Arturo Aldecoa jaiotzeak sustatzeko eta gizartea gaztetzeko neurriak martxan jartea proponidu dau.

Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroaleak oposizinoak Batzarretan egin dauen beharra goraiatu dau: “Oposiziotik borondate ona egon da Gobernuagaz akordioak lortzeko”. Bere berbaldian, Ruiz kritikoa agertu da Ahaldu Nagusiagaz, eta osokoak “bere publizitaderako plataforma moduan” erabiltzea aurpegiratu deutso. Modu berean, bozeroale popularrak gardentasun eta soiltasun faltea leporatu deusaz Foru Aldundiari.

Halanda be, alderdi positiboek be lekua izan dabe bere berbaldian. Bozeroalea ekintzaitzarako nazinoarteko zentroa sortzearen alde agertu da, “Bizkaia finantza arloko erdigune bilakatu ahal izateko”. “Bizkaiak bizkaitar guztientzat aukera berberak eskaintzea gura dogu”, esan dau Javier Ruizek, amaitzeko.

GIZARTE ARLOKO GITXIENGOA

Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak Bizkaiko gitxiengo sozialerako gobernetea aurpegiratu deutso Ahaldu Nagusiari. Batzarkideak, azpiegitura handien aurrean garraio publikoari lehentasuna emon ez izana aurpegiratu deutso Unai Rementeriarri; “ekologiaren ikuspegitik iraunkorra izango dan Bizkaiaren, bioiztasunaren eta talde ekologisten proposamenen” aldeko apustua egin ez izana; instituzionalizauta ez dagon kultur ereduaren aldeko apustua be egin ez izana; ezta “urriak eta herriak deshumanizatuko ez dituan turismo eredu jasangarriaren” aldekoa be.

Orain hilebete batzuk egin eban moduak, Neskutz Rodríguezek errepikau egin dau Bardintasunerako Foru Arauaren aurreko kritikea, *soft law* dala esanda. Bozeroaleak “burdinazko meategiak ustiatzen ebazan gitxiengo elitistaren oinetakoak jarri beharrean gizarteko gehiengoaren zapatak jarteko” eskatu deutso Rementeriarri.

GIZARTE ARLOKO MOBIMENDUAK

EH Bildu taldea ordezkatzuz, Arantza Urkaregi bozeroalea bat etorri da Rementeriaga harek esandako gauza batzuetan: “2018. urtea ikusgarria izan da”. Bere taldearen eretziz, “mobimendu feminista, pentsiodunen mobimendua eta errefuxiatuen eskubideen aldeko mobimendua dirala eta, 2018. urtea ikusgarria izan da”; hori dala eta, bere politikak emakumeengan, pentsiodunengan eta migranteengan zentrau ez izana aurpegiratu deutso Foru Aldundiari.

EH Bilduko bozeroaleak Bizkaian aurrera eroan beharreko politiken diseinuan eta definizinoan herritarrek parte hartu ez izana be kritikatu dau. Urkaregik, “itxuraz herritarrentzat eginda dagon baina herritarren partaidetza barik egin dan politikea” dala esan dau.

Lehentasunak, EH Bilduren eretziz, “Bizkaiko egitura ekonomikoa finkatzea, politika industrialak bizibarritzea eta enplegu duina sortzea” dira; horretarako, Urkaregik, “Bizkaiko industria egitura indartuko daben eta kalidadeko enplegua sortuko daben” neurriak hartu beharra azpimarratu dau. Enplegu publikoa sortzea izango litzateke, Urkaregik adierazo dauenez, “enplegu duina sortzeko bide eraginkorra”.

BIZKAIA HOBEA

Foru Gobernua eusten daben taldeek –EAJ-PNV eta PSE-EE– euren berbaldiak legealdi honetan Bizkaian gauzatu diran jarduketetan zentratea aukeratu dabe.

PSE-EE taldearen partaidetzea izan daben jarduketak izan dira, Ekain Rico bozeroaleak gogoratuazo dauen moduan, orain hiru urte EAJ-PNV taldeagaz sinatu eban Programa eta Gobernu Akordioari esker. Jarduketan barrikuspen horretan, Ricorentzat “garrantzi berezia” euki dabe bere taldeak bultzatutakoek. Horreen bitartez, bere taldeak “jaso ebana baino Bizkaia hobea itzuli gura deutse bizkaitarrei”.

Jarduketa horreen guztien artean, Ekain Ricok Bardintasunerako Foru Araua azpimarratu dau; Teresa Laespada diputatu sozialistaren saila buru izan dauen “gertakari historiko” horrek “gauza guztietan bardintasunaren begiradea jartea dakar”. 2019rako erronka nagusietakoa Arauaren garapena izango da.

Talde sozialistaren “lehentasunezko helburua” mobikortasun iraunkor ereduaren garapena izango da barriro be. Horretarako “tresna pribilegiatua” eukiko dau, Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018 – 2028 Plan Estrategikoa, hain zuzen be.

EAJ – PNV taldea ordezkatzuz, Jon Atutxa bozeroaleak esan dau “argi eta garbi” daukala “2018ko Bizkaia 2017koa baino hobea dala”. Atutxak adierazo dauenez, oso pozik dago “aurrerantz, etorkizuneko ikuspegiagaz begiratzen dauen foru gobernu indartsua” dagolako.

Bozeroale jeltzaleak, zahartzea enplegurako aukerea bilakatzeko Aldundiak egin dauen apustua aitatu dau, “zahartzea gastuagaz lotu beharrean, ekonomia bultzatzeko eta etorkizunean enplegu gehiago sortzeko sektore barri moduan ikustea” eskatuz.

Modu berean, Atutxak balioan jarri ditu Foru Aldundiko kontratazinoan gizarte arloko klausulak sartu izana eta Bizkaian ekitaldi handiak jaso izana. Azken puntu horri

jagokonez, “Bizkaia erakusleihoan jarreak munduagaz lotzen gaituela eta danontzako aukera gehiago sortu daitezala” esan dau, “konpartidutako aukerak”, hain zuzen be.

ADINBAKOAK ETA MERKATARITZEA

Batzarkide jeltzalea bat etorri da Rementerriagaz, LBAA-MENA izenekoek eta merkataritzak sortzen daberen ardurari jagokonez. Lehenengo gaiari jagokonez, Atutxak adierazo dauenez “Batzar honetako batzarkideak modu diskretuan aurrera eroaten ari diran behararen aurrean erabateko konpromisoa daukagu”. “Merezi dau, adinbakoaren onerako”, gehitu dau.

Tokiko merkataritzari jagokonez, bozeroaleak gogoeta pertsonala egitea eskatu deutse herritarrei: “errazena, erosoena, azkenean ez da zertan beti onena izan behar. Gure esku be badago”.

APUSTU ESTRATEGIKOAK DANONTZAT

Bere esku-hartzea ixtean, Atutxak “proposamen horreen protagonista” izateko gonbitea luzatu deutse bizkaitarrei. Modu berean, oposizionoko alderdiei zuzenduta, “gubernua-oposizinoa dialektiketa apurtzeko” eskatu deutse, proposamenak konpartiduz, gehituz eta hobetuz.

GONBIDATUAK

Legealdiko Politika Orokorreko azkenengo Osoko horretan, Osokoen Aretoaren goikaldean, Euskadiko ia alderdi politiko guztien ordezkariak egon dira. Beste pertsona batzuen artean bertan egon dira Itxaso Atutxa EAJ-PNVko Bizkai Buru Batzarreko presidentea; Mikel Torres Bizkaiko PSE-EE alderdiko idazkari nagusia; Jasone Agirre EH Bilduko legebiltzarkidea; eta Raquel González Bizkaiko PPko presidentea.

24/09/18

Bizkaia busca “convertir el envejecimiento en una oportunidad económica y de empleo” con el Nagusi Intelligence Center

El Diputado General de Bizkaia, Unai Rementeria, ha anunciado en el pleno de Política General celebrado hoy en Gernika, el último de la legislatura, que la Diputación Foral de Bizkaia destinará 20 millones de euros en los cinco próximos años a la puesta en marcha del Nagusi Intelligence Center (NIC). Un “centro de referencia mundial” que permitirá a Bizkaia “generar una oportunidad en torno al envejecimiento, a la Silver Economy”.

Este espacio buscará dar respuesta a los tres retos definidos por la Diputación Foral para este año. En primer lugar impulsar una formación orientada al envejecimiento; en segundo lugar crear una plataforma Big Data con el fin de centralizar todos los datos repartidos por Euskadi.

Y en tercer lugar, generar nuevas tecnologías al servicio de las personas mayores. Unai Rementeria ha hecho hincapié en la necesidad de dotar al territorio de “un laboratorio avanzado para el testeo y validación de productos sanitarios (para hospitales y residencias) y socio sanitarios (para el hogar), y a su vez, convertir al Territorio en “proveedor de tecnologías y equipamientos de nicho”.

De igual manera, el Diputado General ha anunciado que la Diputación Foral de Bizkaia ocupará el antiguo edificio BBVA, el cual pasará a llamarse Torre Bizkaia. Lo que, en palabras de Unai Rementeria, tiene el objetivo de ser “el nuevo faro de Bizkaia”, albergará “en su corazón” el centro internacional de emprendimiento, “un proyecto ambicioso que une a la Diputación y al Ayuntamiento de Bilbao”.

En su discurso, sin embargo, también ha hecho balance de este último año y de la gestión de su Gobierno. En materia de empleo, el Diputado General ha valorado la apuesta de su gobierno por la actividad económica y el empleo y, en este sentido, ha destacado el descenso del número de personas paradas. Tal y como ha manifestado, “cerramos agosto con 5.000 paradas y parados menos”. De igual manera ha destacado la implantación de 31 nuevas empresas en Bizkaia, así como la ayuda prestada a 1.351 pymes.

El turismo y los grandes eventos que han tenido y van a tener lugar en Bizkaia han convertido 2018 en “un año irrepetible”. Como ha explicado el Diputado General, Bizkaia vuelve a batir su propio record de visitantes; el aeropuerto de Loiu ha recibido casi cuatro millones de viajeros y viajeras en lo que va de año, y cuatro de cada diez turistas provienen del extranjero.

No obstante, Unai Rementeria también ha recordado que éste “también ha sido un año con problemas”. El primero, el de los Menores Extranjeros No Acompañados (MENAs); en este sentido ha subrayado que “Bizkaia ha sido, es y será solidaria, pero hasta donde pueda”. En cuanto al segundo problema, el comercio local, el Diputado General ha trasladado a los allí presentes un reto: “Ser uno: comercio de Bizkaia, de calidad, cercanía y competitivo”.

Entre otras de las actuaciones que ha anunciado desde la tribuna, Rementeria ha pedido un “Geroa vizcaíno”, una Entidad de Previsión Social Voluntaria (EPSV) de empleo “para todos los trabajadores de Bizkaia” que complemente el actual sistema de prestaciones. En lo que al transporte se refiere, el Diputado General ha destacado dos proyectos “para el futuro de la conectividad y de la calidad de vida del Territorio”: el túnel bajo la ría que unirá ambas márgenes y la segunda fase de la Supersur. El tratamiento de residuos y el cuidado del medio ambiente serán, nuevamente, objetivos para el futuro.

GRUPOS DE LA OPOSICIÓN

Arturo Aldecoa, portavoz del Grupo Mixto, ha sido el encargado de abrir el turno de intervención de los grupos. A pesar de coincidir con el Diputado General en los éxitos logrados por su equipo de gobierno en este último año, el apoderado ha optado por realizar un “pequeño análisis de debilidades”. Entre otras cosas, Aldecoa ha advertido sobre la “excesiva dependencia” que sufre Bizkaia de Petronor e Iberdrola: “Por un lado es una suerte, pero también es una debilidad”.

Por otra parte, con el fin de abordar el problema del envejecimiento, Arturo Aldecoa ha propuesto llevar a cabo medidas de fomento de la natalidad y rejuvenecimiento de la sociedad.

Javier Ruiz, portavoz del Grupo Popular, ha alabado el papel de la oposición en la Cámara: “Ha habido buena voluntad desde la oposición a alcanzar acuerdos con el Gobierno”. En su intervención, Ruíz se ha mostrado crítico con el Diputado General, acusándole de utilizar los plenos “como plataforma para su publicidad”. Asimismo, el portavoz popular ha achacado a la Diputación Foral de falta de transparencia y de austeridad.

No obstante en su discurso también ha habido lugar para los aspectos positivos. El portavoz ha manifestado su apoyo a la creación de un centro internacional de emprendimiento, “con la idea de convertir Bizkaia en un centro financiero”. “Queremos una Bizkaia que brinde igualdad de oportunidades a todos los vizcaínos y vizcaínas”, ha cerrado Javier Ruíz.

MINORIA SOCIAL

La portavoz de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodríguez, ha acusado al Diputado General de gobernar para una minoría social de Bizkaia. La apoderada ha achacado a Unai Rementeria el no haber priorizado el transporte público frente a las grandes infraestructuras; el no haber apostado por “una Bizkaia ecológicamente sostenible, por la biodiversidad y por las propuestas de los colectivos ecologistas”; el no haber apostado tampoco por un modelo cultural no institucionalizada; ni por “un modelo turístico sostenible y que no deshumanizara las ciudades ni los pueblos”.

Neskutz Rodríguez ha reiterado, como ya hizo hace unos meses, su crítica a la Norma Foral de Igualdad denominándola *soft law*. La portavoz ha cerrado el discurso instando a Rementeria a “ponerse los zapatos de la mayoría social, no de la minoría elitista que explotaba las minas de hierro”.

MOVIMIENTO SOCIALES

En representación al grupo EH Bildu, su portavoz Arantza Urkaregi ha coincidido con Rementeria en una de sus afirmaciones: “2018 ha sido espectacular”. En opinión de su grupo, “el movimiento feminista, el de pensionistas y el movimiento en favor de los derechos de las personas refugiadas han hecho de 2018 un año excepcional”; por esta razón ha acusado a la Diputación Foral de no haber centrado sus políticas en las mujeres, los pensionistas y los migrantes.

La portavoz de EH Bildu también ha criticado la falta de participación ciudadana en el diseño y definición de las políticas a llevar en Bizkaia. Urkaregi la ha definido como “una política que supuestamente es para la ciudadanía pero hecha sin ciudadanos”.

Las prioridades, en opinión de EH Bildu, son “afianzar el tejido económico de Bizkaia, reavivar la política industrial y crear empleo digno”; para ello Urkaregi hace hincapié en la necesidad de adoptar medidas que “fortalezcan el tejido industrial de Bizkaia y que creen empleo de calidad”. La creación de empleo público sería, según ha planteado Urkaregi, “el camino más efectivo para generar empleo digno”.

UNA BIZKAIA MEJOR

Los grupos que sustentan al Gobierno foral – EAJ- PNV y PSE-EE- han optado por centrar sus discursos en las actuaciones que se han ido materializando en Bizkaia durante esta legislatura.

Actuaciones de las que ha formado parte el PSEE-EE, tal y como ha recordado su portavoz Ekain Rico, gracias al Acuerdo Programático y de Gobierno que firmaron con el PNV hace tres años. En esta revisión de actuaciones, para Rico han adquirido “especial relevancia” aquellas impulsadas por su grupo, gracias a las cuales, su grupo pretende devolver “a los vizcaínos y vizcaínas una Bizkaia mejor que la que le entregaron”.

Entre todas estas actuaciones, Ekain Rico ha destacado la Norma Foral de Igualdad; este “hito histórico” liderado por el departamento de la Diputada socialista, Teresa Laespada, “supone poner la mirada de igualdad en todo”. Uno de los retos para 2019 será su desarrollo.

El grupo socialista mantendrá nuevamente como “objetivo prioritario” el desarrollo de un modelo de movilidad sostenible. Para ello se contará con “una herramienta privilegiada” como es el Plan Estratégico del Transporte Público en Bizkaia 2018 – 2028.

En representación de EAJ – PNV, su portavoz Jon Atutxa ha admitido estar “convencido” de que “la Bizkaia de 2018 es mejor que la de 2017”. Atutxa ha manifestado su ilusión por contar “con un gobierno foral pujante que mira hacia adelante con perspectiva de futuro”.

El portavoz nacionalista ha hecho referencia a la apuesta de la Diputación por convertir el envejecimiento en una oportunidad de empleo, instando a “dejar de asociar el envejecimiento al gasto y verlo como un nuevo sector de desarrollo para el impulso a la economía, para la creación de nuevos empleos es el futuro”.

De igual manera, Atutxa ha puesto en valor tanto la introducción de las cláusulas sociales en la contratación de la Diputación Foral, como en el acogimiento de grandes eventos en Bizkaia. Respecto a este último punto ha manifestado que “poner Bizkaia en el escaparate nos conecta con el mundo y puede generar más oportunidades para todos y para todas, oportunidades compartidas”.

MENORES Y COMERCIO

El apoderado nacionalista ha compartido con Rementeria la preocupación por los MENAs y el comercio. Respecto al primer asunto, Atutxa ha declarado que “mantenemos nuestro compromiso de máximo respeto a las labores que junteros y junteras de esta cámara están desarrollando de forma discreta”. “Merece la pena, por el bien del menor”, ha añadido.

En lo que al comercio local se refiere, el portavoz ha instado a la ciudadanía a realizar reflexión personal: “lo fácil, lo cómodo, no siempre puede ser al final lo mejor. De nosotros y nosotras también depende”.

APUESTAS ESTRATÉGICAS PARA TODOS Y TODAS

Atutxa ha cerrado su intervención invitando a vizcaínos y vizcaínas a ser “protagonistas de estas propuestas”. A su vez, dirigiéndose a los partidos de la oposición ha animado a “romper con la dialéctica gobierno – oposición” y que compartan, sumen y mejoren dichas propuestas.

INVITADOS

En este último en este último Pleno de Política General de la legislatura ha estado presente en la parte superior de la Sala de Plenos una representación de casi todos los partidos políticos vascos. Entre otras personas, allí ha estado la presidenta del Bizkai Buru Batzar de EAJ-PNV, Itxaso Atutxa; el secretario general del PSE-EE de Bizkaia, Mikel Torres; la parlamentaria de EH Bildu, Jasone Aguirre; y la presidenta del PP de Bizkaia, Raquel González.